

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aralar legebiltzar-taldeko bozeramaile Aintzane Ezenarro Egurbidek, indarrean den Erregelamenduaren babesean, **osoko bilkuran** erantzuteko hurrengo **galdera** egiten dio Barne Sailburu Rodolfo Ares Taboadari, “Jaietan gertatzen diren emakumeen kontrako erasoen inguruan”:

ZIOA:

Ikusirik emakumeen kontrako eraso sexistak eguneroko ogia direla (2008an Emakundek kaleratutako datuen arabera, 2007an 275 salaketa jarri ziren sexu eraso eta gehiegikeriengatik) eta, bereziki, herrietako jaietan arriskua areagotu egiten dela, hurrengo galdera egiten dio Genero indarkeria jasaten duten biktimen harretarako zuzendaritzari dagokionean:

GALDERA:

Jaietan izaten diren emakumeen kontrako eraso sexisten aurrean egin du prebentziorako inolako planik Genero indarkeria jasan duten biktimen harretarako zuzendaritzak?

Gasteizen, 2009ko uztailaren 22an

Aintzane Ezenarro Egurbide

Aralar Legebiltzar-taldeko bozeramailea